

Gure ikurra

Enpresek, merkatuko produktuek edota ekitaldi batzuek beren ezaugarriak islatu nahi izaten dituzte aukeratzen dituzten logo edo ikurren bidez. Animalien irudiak oso ohikoak izaten dira ikur horietan. Sekuentzia honetan gai hori duzu hizpide, eta ariketa hauek egiteko proposamena eskaintzen dizugu:



- Gaian sartzeko mintzasaioa egin.
- Audioa entzun eta aukera egokia hautatu. Ondoren, iritzia eman.
- *-(r)ekiko* atzizkia lantzeko ariketa egin eta kontaketa laburra egin.
- Produktu baten logorik egokiena hautatu eta zure aukera arrazoitu.

1. Gaian sartzeko



- ◆ Ekitaldi, enpresa edo erakunde ugariren logo edota irudietan animaliak erabiltzen dira. Binaka jarri eta aipatu animalia desberdinak dituzten pare bat ikur edo logo.

Ba niri Metro Goldwyn Mayerreko lehoa etortzen zait burura...

Bai, lehoi hori oso ezaguna da...

Ikusi taldean zenbat animalia mota atera diren, eta zerrendatu.

- ◆ Aukeratu taldeko zerrendatik atera diren bi animalia. Adierazi zein ezaugarriekin lotuko zenukeen bakoitza eta osatu lainoa. Eman gutxienez bi edo hiru ezaugarri:

Lehoa: Indarra, lidergoa, edertasuna ...


2. Txinako Joko Olinpikoak



Entzun audioa eta, ondoren, hautatu erantzun egokia:



<https://labur.eus/pJYHZ>



1. Zer lortu nahi da Joko Olinpikoetako maskoten bidez?

- a) Irudiaren estetika, edertasuna nabarmentzea.
- b) Animalien aldeko sentsibilitatea handitzea.
- c) Gertutasuna. Sentimenduetan eragitea.

2. Maskoten erabilera logo edo ikur gisa...

- a) ohikoa da automozioan eta elikaduran, adibidez.
- b) produktu garestietan ohikoa da, ez bestelakoetan.
- c) umeei zuzenduta dauden produktuetan soilik egiten da, adibidez, zerealetan.

3. Jota Pizarroren iritziz...

- a) animalia ezezaguna bada, ez da erraza izaten haren ezaugarriekin bat egitea.
- b) Bing Dwen Dwenek oso ondo islatzen ditu benetako hartz baten ezaugarriak: indarra, beldurra, lehia... Horregatik du arrakasta.
- c) hartz txinatarraren irudiak geure emozietan eragiten du eta hunkitzea lortzen du.



Bikoteka erantzun. Ondoren, ikusi atera diren erantzunak talde handian.

Joko Olinpikoetan herrialde gehienek erabili dute animalia bat ikur gisa. Entzundakoak entzunda, zein animalia aukeratuko zenuke zuk Joko Olinpikoak Euskal Herrian antolatuz gero? Arrazoitu erantzuna.



Argazkia: Bing Dwen Dwen eta Shuey Rhon Rhon
Creative Commons Wikimedia

3. -(r)ekiko atzikia

Bing Dwen Dwen hartzak Txinako Joko Olinpikoekiko lilura sentitzea bilatzen du. Erreparatu “-(r)ekiko lilura sentitzea” egiturari:

–NOREKIN kasuari –ko atzikia erantsiz sortzen da **-(r)ekiko atzikia**. Normalean izenarekin doan forma da, eta izenlagun gisa erabiltzen da:

Joko Olinpikoekin daukagun lilura sentitzea = Joko Olinpikoekiko lilura sentitzea.





Ikus adibide batzuk:

Zaintzaileek animaliekin duten harremana harrigarria da → Zaintzaileen **animaliekiko harremana** harrigarria da.

Erakundeak kolore gorriarekin duen lotura begi bistakoa da → Erakundearen **kolore gorriarekiko lotura** begi bistakoa da.



Zenbait animalia dituzu hemen. Osatu bakoitzarekin esaldi bana **-(r)ekiko atzikia** erabiliz:

 <p>Argazkia: Sasin Tipchai. Pixabay</p>	<p>Thailandian oso handia da elefanteekiko errespetua</p>
 <p>Argazkia: Pascal Laurent. Pixabay</p>	
 <p>Argazkia: Mirko Sajkov. Pixabay</p>	
 <p>Argazkia: Steve Roberts. Pixabay</p>	



Kontatu ikaskideari, animaliairen batekin izan duzun pasarteren bat. Saiatu *-(r)ekiko* atzizkia erabiltzen.

- Lehengo urtean jaialdi jendetsu batean semeari zakur batek koska egin zion. Zakurrekiko beldurra ez du oraindik gainditu.
- Bai, oso normala izaten da umetan zakurrekiko beldurra sentitzea...

4. Gure produktuaren ikurra



Ezagutzen duzuen produktu bat merkatura plazaratzeko logo edo ikurrik onena aukeratuko duzue. Horretarako, jarraitu urrats hauek talde txikitan jarrita:

- Produktu, enpresa edo ekitaldi ezagun bat aukeratu.
- Logo edo ikur gisa, bere ezaugarriekin bat etorriko litzatekeen animalia egokia adostu. Dagoeneko baldin badauka, saiatu ikur hori hobetzen.
- Aurkeztu zuen irudia taldean eta, ezaugarriak aintzat hartuz, arrazoitu egindako aukera. Lagungarria izan daiteke lehenengo ariketan osatutako zerrenda.
- Eman bozka taldeko ikurrik onenari.

- Nik musika-jaialdi bat aukeratuko nuke, EH Zuzenean, adibidez...
- Ideia ona da. Musikarekiko atxikimendua ongi islatzen du txori batek, ezta?...
- Ez dakit ba...
- Bai, nik txoria alaitasunarekin lotzen dut, koloreekin, kantuekin
- (...)



EHZ 
herri bat zuzenean

Argazkia: EHZ (Euskal Herria Zuzenean) 2013
(CC BY-NC 2.0)

ERANTZUNAK

1. Gaian sartzeko

Ezaugarrien zerrenda osatzeko baliagarriak izan daitezkeenak: ausardia, kemena, azkartasuna, sasoia, eragargarritasuna, arintasuna, goxotasuna, alaitasuna, dotorezia...

2. Txinako Joko Olinpikoak

Erantzunak:

1.C; 2.A; 3.C

HIZTEGI LAGUNGARRIA:

Animalia-itxurako izaki. Animalia dirudien edo animalia-antza duen izakia.

Hamarkada. Hamar urteko denbora-tartea.

Gertutasun-puntua bultzatzeko. Hurbiltasuna sentiarazteko neurri batean.

Lilura sentitzea edo hunkituta sentitzea. Zerbaitekin zirrara sentitzea.

TRANSKRIPZIOA

Esataria 1. Txinako Olinpiar Jokoetarako egin duten abestia. Gorka Otegi, egun on, Gorka.

Esataria 2. Egund on. Egund on.

Esataria 1. Bing Dwen Dwen.

Esataria 2. Bitxia da ikustea nola azken mende-erdian olinpiar jokoek beti izan duten maskota- edo animalia-itxurako izakiren bat, ez?, hor, maskota bezala.

Esataria 1. Eta hori aztertu nahi dugu zergatik zera, maskota gisa animaliak, zergatik logoetan, olinpiar jokoei eta kirolari lotuta animaliak. Nerea Zia Nazioarteko Marketing digitalean aditu da Bostnan agentzian. Nerea, kaixo, egund on.

Nerea Zia marketing-aditua. Egund on, guztioi.

Esataria 1. Eta Jota Pizarro psikologoa da eta psikologia sozialeko ikertzaile Euskal Herriko Unibertsitatean. Jota, egund on zuri ere. Laster izango da gurekin Jota Pizarro. Nerea, zuretzat lehendabiziko galdera.

Nerea Zia. Bai.

Esataria 1. Diseinuaren ikuspuntutik maskota ona iruditzen zaizue Bing Dwen Dwen hartza?

Nerea Zia. Bueno, aber, egia esan ez da berria, ez? Lehen aipatu duzue: 2008ko Pekinen udako olinpiadetan ere panda erabili zuten. Baina egia da Txina azkar lotzen dela pandekin, ez? Erraza da lotzea horrela. Eta bueno, izpiritu olinpikoaren espektro osoa adierazteko uste dugu erabili dutela, ez?: bai pasioa, elkar ulertzea...

Esataria 1. Bai.

Nerea Zia. Ezaugarri hauek hartzen dituzte. Horrela publikoa ere aktiboki inplikatzeko errazagoa da.

Esataria 1. Bueno, Jota Pizarro ere gurekin da, psikologoa. Jota, kaixo. Egund on.

Jota Pizarro irakaslea. Bai, kaixo, egund on. Bai.

Esataria 1. Bai, Jota. Hamarkadak dira olinpiar jokoek, neguko zein udakoek, maskotak dituztela. Zergatik baliatzen dira beti animaliak edo animalia-itxura duten maskotak?

Jota Pizarro. Ba ez dakit, baina igual psikologiatik, adibidez, nik pentsatzen dot (dut) animalia askorekin sentitzen... emozioak, emozio asko sentitzen ditugulako. Eta emozio batzuk oso komenigarriak dira, igual gertutasun-puntuak sentitzea eta. Nik pentsatzen dot (dut) horrek laguntzen duela, nolabait, hori, ba, ba, gertutasun-puntua bultzatzeko.

Esataria 1. Nerea, konturatzen ez garen arren animaliadun logoek inguratzen gaituzte. Esate baterako, estudio honetan bertan mahaiaren erdian dugun EITBren txantxangorria, ba hortxe dago, hona, guri begira. Hona etorri gara igelaren logoa duen DBuseko Donostiako udal autobus-konpainian. Animaliez inguratuta gaude.

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(Aurreko orritik dator)

Nerea Zia. Bai. Oso-oso ugariak dira logoak erabiltzea sektore askotan e! Adibide erraz bat kotxeetan, adibidez. PUES hor daukagu Peugeot, Porsche, Jaguar... Badakit oso garestiak direla, baina bueno, hor badaude marka guzti hauek. Elikaduran ere badaukagu, ba Nestlé eta umeentzako zerealetan ere animalia asko erabiltzen dira. Eta aber, kiroletan ere gertu ditugun adibideak. Adibidez, CVC, Baskoniak animaliak erabiltzen dituzte.

Esataria 1. Bereziki aipatu dizkiguzu Nerea automozioiko markak...

Nerea Zia. Bai.

Esataria 1. Beraiek dira seguru aski gehien erabiltzen dituztenak animaliak?

Nerea Zia. Bai. Bai.

Esataria 1. Bai.

Nerea Zia. Gehienbat bai. Eta gero hori, elikaduran, umeentzako produktuetan baita ere.

Esataria 1. Bueno, Jota, lehen aipatu dituzue emozioak, ezta?, emozioek duten garrantzia, animaliek izugarri erakartzen gaituzte orokorrean.

Jota Pizarro. Bai. Bai. Beti. Beti. Eta, adibidez, kasu honetan Bing Dwen Dwen irudia ikusten ari naiz juxtu momentu honetan, eta klaro, hemen adibidez, pandarik ez dago, baina panda horrek badauzka ezaugarri batzuk... Igal nolabait ezaugarri hauek hackeatu egiten dituztela gure biologiak, ez? Adibidez, begi handiak edo ileak bertan, adibidez, holako ezaugarriak... Nik pentsatzen dot (dut) prestatuta gaudela holako estimuluekin erreakzioa sentitzeko eta ba(da) horrengatik sentitzen ditugu emozio batzuk, eta batzuk dira, adibidez, lilura sentitzea edo hunkituta sentitzea. Eta askotan animalia hauek, eta guk praktikatzen dugun hori, ba bideoak eta esperimenduak egiten, lortzen dugun [ditugun] emozio batzuk... Haietako bat da esatea, adibidez: "A, baina ze polita den!", ezta? Hori emozio, nahiko soziala da emozio hori, guk deitzen diogu "mamuta" emozio horri, eta da hunkituta sentitzea. Eta nahiz eta, adibidez, hori ez den izango finalitatea (helburua) emozio hori sentitzea, baina nolabait hackeatu dutela gure biologia, pentsatzen dot. (dut).